

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkarirena, Eulen Sociosanitarios, S.A. (Bergara-ko etxez etxeko laguntza) enpresaren hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (kodea 20103971012018).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2021eko urriaren 4an enpresako zuzendari-
tzak eta langileen ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen
kolektiboa.

Bigarrena. 2021eko urriaren 5ean aurkeztu zen Lurralde
Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gor-
dailu eta argitalpen eskaera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege
Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu ba-
teginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintari-
tza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu
Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarril-
aren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria); urtarrilaren 25eko
9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren
Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua
(2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio
kolektiboaren erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik ai-
patutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90
artikuluak xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregis-
troan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko
agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko
agintzea.

Donostia, 2021eko urriaren 14a.—Juan María Esnaola Men-
dizabal, jarduneko lurralde ordezkarria. (6755)

*Bergara udalerrirako etxeko laguntzaren Hitzarmen
Kolektiboa. 2021-2025 Bergara.*

1. artikulua. Lurralde-eremua.

Enpresa-hitzarmen honek Eulen Servicios Sociosanitarios SA
enpresan, Bergara udalerrirako Etxeko Laguntza Zerbitzuan, zerbi-
tzu profesionalak ematen dituzten langile guztiei eragiten die.

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Se-
guridad Social, por la que se dispone el registro, pu-
blicación y depósito del convenio colectivo de Eulen
Sociosanitarios, S.A. (Ayuda a domicilio de Bergara)
(código 20103971012018).*

ANTECEDENTES

Primero. El día 4 de octubre de 2021 se suscribió el con-
venio citado por la dirección de empresa y la representación de
los trabajadores.

Segundo. El día 5 de octubre de 2021 se presentó en esta
Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publica-
ción del referido convenio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto
refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real De-
creto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta
autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto
7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de
29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y
funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación
con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País
Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de
mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y
depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El convenio colectivo ha sido suscrito de confor-
midad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la
referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de
Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de
Gipuzkoa.

San Sebastián, a 14 de octubre de 2021.—El delegado terri-
torial en funciones, Juan María Esnaola Mendizabal. (6755)

*Convenio Colectivo para el personal de ayuda a domi-
cilio de Bergara 2021-2025.*

Artículo 1. Ámbito territorial.

El presente Convenio de Empresa afecta a todos los trabaja-
dores y trabajadoras que prestan sus servicios profesionales
para la empresa Eulen Servicios Sociosanitarios, S.A. en el Ser-
vicio de Asistencia Domiciliaria del municipio de Bergara.

2. artikulua. Indarraldia.

Hitzarmen hau 2021eko irailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean.

Hitzartutako iraupena amaitutakoan, hitzarmenaren amaiera automatikoki iragarritzat joko da 2025eko ekainaren 15ean. Honako hau ordeztu duen beste hitzarmen bat sinatu arte, honexek jarraituko du indarrean.

KONTRATAZIO-MOTAK

3. artikulua. Enplegua eta Kontratazioa.

Kontratu mugagabea: Enpresako langileen gutxienez % 75 mugagabea izango da, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Halaber, lan-kontratuan berriaz egiaztatu beharko da benetako lanaldiaren portzentajea, arraste-orduak kontuan hartu gabe.

Zerbitzuaren beharrianak direla-eta, baldin eta esleitutako erabiltzaileak behin betiko baja eman duelako zerbitzuak murrizten badira, kontratu mugagabea aldatu egingo da, eta langilearen benetako lanaldira egokituko. Era berean, prozedura hori jarraituko da zerbitzura inskribatutako erabiltzaile berrien altak daudenean edo zerbitzuak handitzen direnean.

LANALDIA

4. artikulua. Lanaldia.

Urteko lanaldia urtean 1.592 ordukoa izango da, eta asteko zenbaketa, bestetik, astean 35 ordukoa.

Enpresak zin egiten du ahal den neurrian zerbitzuak jarraitu izango direla, zerbitzutik zerbitzura denborarik alferrik gal ez dadin. Egiteke dauden orduak: lan egindako ordu-kopurua lan-kontratuan finkatutako lanaldikoa baino handiagoa edo txikiagoa izan daitekeenez, hileror orduak erregularizatu egingo dira.

Gabon-egunean eta urtezahar-egunean ematen diren etxeko zerbitzuetan, lanaldia 12:00etan amaituko da. Zuzeneko arretako zerbitzua txandaka emango da.

Zerbitzuen artean galdutako denbora konpentsatzeko, distantzia-plusaren kontzeptua ezarriko da. Horren arabera, 65 euro gordin ordainduko dira hilean, I. eranskinean jasotako soldata-igoerekin. Edonola ere, kopuru horiek lanaldiarekiko proportzionalak izango dira, eta 11 ordainsaritan ordainduko dira.

Lan-denbora zenbatzeko moduak ziurtatuko du langilea bere lanpostuan egongo dela lanaldiaren hasieran eta bukaeran.

Koordinatzailearen kasuan: benetako laneko ordutzat jotzen dira barne- edo kanpo-koordinazioari, plangintzari, programazioari, prestaketari, jarraipenari, ebaluazioari, txostenen edo memorien idazketari, bilerei, materialen edo jantzien erosketari edo antzekoa den edo esku-hartze soziala egokiro garatzeko beharrezkoa den beste edozein zeregin eskainitakoak. Enpresak iragarritako bilerak (urtean 2) kontzeptu horretatik kanpo gertatzen dira.

5. artikulua. Gutxieneko lanaldia.

Langileek astean gutxienez 25 orduko lanaldia dutela bermatuko da. Edonola ere, antolaketa-arrazoia direla-eta arretian adierazitakoa ezinezkoa bada, 20 ordu izango da gutxienekoa.

6. artikulua. Lan-egutegia.

Enpresak eta langileen ordezkariak adostuta finkatuko dira lan-ordutegi eta -egutegiak. Urteko lanaldi osoa erregulariki banatuko da, eta lanaldiaren % 100 sartuko da egutegietan.

Artículo 2. *Ámbito temporal.*

La vigencia del presente convenio se extenderá desde el día 01 de septiembre del 2021 hasta el 31 de diciembre del 2025.

Concluida la duración pactada, el convenio quedará denunciado de manera automática el 15 de junio del 2025. Mientras no se firme un nuevo convenio que lo sustituya, el presente se entenderá prorrogado expresamente.

MODALIDADES DE CONTRATACIÓN

Artículo 3. *Empleo y contratación.*

Contrato indefinido: Como mínimo el 75 % de los trabajadores/as de la empresa estarán contratados bajo esta modalidad a partir del 1 de septiembre de 2021 y constanding, en el contrato de trabajo, el porcentaje real de jornada sin tener en cuenta las horas de arrastre.

Por necesidades del servicio, cuando la prestación de servicios se vea reducida por una baja definitiva del usuario asignado, se procederá a la modificación del contrato indefinido ajustándose a la jornada real del trabajador/a. Asimismo, se seguirá dicho procedimiento en el caso de ampliaciones y altas de nuevos usuarios inscriptos al servicio.

JORNADA DE TRABAJO

Artículo 4. *Jornada.*

La jornada anual para será de 1.592 horas al año que en cómputo semanal resulta 35 horas a la semana.

La empresa, se compromete, en la medida de lo posible que, los servicios sean continuados en aras a no producirse «tiempos muertos» entre servicio y servicio. Horas pendientes: como consecuencia del exceso o defecto, que pudiera producirse entre las horas realizadas y las reflejadas como jornada establecida en el contrato de trabajo, se realizara una regularización con periodicidad mensual.

Los servicios domésticos que se realizan en el día de nochebuena y nochevieja, la jornada de trabajo finalizará a las 12:00 horas. El servicio que se presta de atención directa, se prestará a turnos y de forma rotativa.

Se compensará el tiempo perdido entre servicios abocándose bajo el concepto de Plus distancia, la cantidad de 65 euros brutos mensuales con sus correspondientes incrementos salariales recogidos en el anexo I, siendo dichas cantidades proporcionales a la jornada de trabajo y por 11 pagas.

El tiempo de trabajo se computará de modo que tanto al comienzo como al final de la jornada de trabajo el personal se encuentre en su puesto de trabajo.

En el caso de la Coordinadora: se consideran también horas de trabajo efectivo aquellas que se dedican a la coordinación interna o externa, planificación, programación, preparación, seguimiento, evaluación, redacción de informes o memorias, reuniones, compra de materiales, vestuario o cualquier otra tarea análoga o necesaria para el buen desarrollo de intervención social. Se exceptúa de este concepto las reuniones convocadas por la empresa (2 anuales).

Artículo 5. *Jornada mínima.*

Se garantizará que las trabajadoras tengan como mínimo una jornada de 25 horas semanales. En todo caso en aquellas ocasiones que organizativamente no sea posible, el mínimo será de 20 horas.

Artículo 6. *Calendario laboral.*

La fijación de los horarios de trabajo y los calendarios laborales será consensuada entre la empresa y los representantes de los trabajadores. La totalidad de la jornada anual será repartida de manera regular, incorporando a los calendarios el 100 % de la jornada laboral.

Enpresak urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen egingo du lan-egutegia, langileen ordezkariekin kontsultatu ondoren.

Urteko lanaldiaren banaketa lan-karteldegian jasoko da. Ber- tan, urte osoko lanaldiak, atsedenaldiak, oporrak, etab. agertuko dira.

Urte bakoitzeko otsailaren 28rako lan-egutegia ezarrita eta langileen artean banatuta ez badago, legezko ordezkariak, hurrengo hilabetearen zehar, egutegi hori finkatu ahaliko dute, hitzartutako lanaldia zainduta. Martxan dagoen urteko urtarrilaren 31rako langileek ez badituzte idatziz aurkeztu opor-eskariak, enpresak finkatuko ditu langile bakoitzaren oporraldiak.

Langile guztiek izango dute hilean gutxienez larunbat bat libre, oporrak dituzten hilabetearen izan ezik.

7. artikulua. Urteko oporrak.

Hitzarmen honetan sartzen diren langileek urtean gutxienez 31 egun naturaleko oporraldia izango dute, horietatik 26 lan-egunak izanik (asteleheneratik larunbatera), edo lan egindako denboraren arabera dagokien zati proportzionala. Horren barruan, oinarritzko soldata, antzinasuna eta borondatezko plusa ordainduko dira.

Langile batek urtean zehar lana uzten badu, lan egindako denboraren arabera oporren zati proportzionalerako eskubidea edukiko du, hamabirenetan kalkulatua. Halaber, urte naturalean zehar hasten bada, proportzioan dagozkion oporrak hartu ahal ditu.

Oporrak ekainean, uztailean, abuztuan, irailean eta abenduan hartuko dira ahal dela, eta enpresaren eta langileen arteko akordio zehaztuko dira.

Oporraldia koordinatzaileari eskatuko zaio idatziz, urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen. Koordinatzaileak, aztertu ostean, langilearekin adostuko du eskatutako bi hamabostaldiak hartzeko aukera dagoen ala ez, gainerako langileen eskaera aintzat harturik.

Langileen % 25 baino gehiagok ezingo dituzte inola ere oporrak aldi berean hartu arestian aipatutako aldietan.

Ehuneko hori aplikatzean lortzen den emaitza pertsonen kopuru oso bat ez bada, emaitzazko zatidura honela biribilduko da:

– Emaitzazko koefizientea 0,5 baino baxuagoa bada, azpitik dagoen hurrengo zenbatekoaren arabera biribilduko da.

– Emaitzazko koefizientea 0,5 edo altuagoa bada, goitik dagoen hurrengo zenbatekoaren arabera biribilduko da.

Lan-egutegia, opor-egunak barne, enpresa-batzordeari eta plantillari jakinaraziko zaie urte bakoitzeko otsailaren 28rako.

Langileen Estatutuan ezarritakoari kalterik egin gabe, oporraldian langileak aldi baterako ezintasuna badu eta, ondorioz, dagozkion urte naturalaren barnean ezin baditu oporrak hartu, ABE amaitutakoan hartu ahal izango ditu, kontuan hartu gabe zer kontingentziak eragin duen. Edonola ere, ezingo dira 18 hilabete baino gehiago igaro oporraldiei dagokien urtearen amaieratik aurrera.

Oporrak ezin izango dira dirutan konpentsatu.

Oporrak hamabostaldietan hartuko dira. Abuztuko bigarren hamabostaldia abuztuaren 16an hasiko da, atsedeen-eguna ez bada.

8. artikulua. Laneko arropa.

Enpresak lana betetzeko behar den arropa guztia emango du (latexeko eskularruak, garbitzekoak, urteko 2 uniforme, izan aurreko mantalak, mantalak zein pijamak, eta labaintzen ez den eskalapoï-para).

La Empresa elaborará el calendario laboral antes del 28 de febrero de cada año previa consulta con la representación de las trabajadoras.

La distribución de la jornada de trabajo anual se recogerá en la cartelera de trabajo. En ella se recogerán las jornadas de trabajo, la de los descansos, los periodos vacacionales, etc. de todo el año.

Si para el 28 de febrero de cada año el calendario laboral no está establecido y repartido entre las trabajadoras, la representación legal, durante el mes siguiente tendrá la facultad de fijar dicho calendario respetando la jornada anual pactada. Si para el 31 de enero del año en curso los trabajadores/as no han hecho entrega de la solicitud de vacaciones por escrito, será la empresa la que fije el período vacacional de cada trabajador/a.

Todo el personal disfrutará de al menos de 1 sábado al mes, a excepción del mes de vacaciones.

Artículo 7. Vacaciones anuales.

El personal comprendido en el presente Convenio disfrutará de un período de vacaciones anual mínimo de 31 días naturales, de los cuales 26 serán laborables (de lunes a sábado) o la parte proporcional que correspondan en función del tiempo trabajado, retribuido a Salario Base, Antigüedad y Plus voluntario.

Cuando la trabajadora o el trabajador cesen en el transcurso del año, tendrán derecho a la parte proporcional de vacaciones en razón del tiempo trabajado, calculado por doceavas partes. Asimismo, tendrá derecho a disfrutar de la parte proporcional en el caso que comenzará a trabajar dentro del año natural.

Las vacaciones se disfrutarán preferentemente en los meses de junio, julio, agosto, septiembre y diciembre, determinándose por acuerdo entre empresa y personal.

La solicitud del período de vacaciones se realizará por escrito a la coordinadora, antes del 31 de enero del año en curso, quien tras su análisis consensuará con la trabajadora la posibilidad de disfrute o no de las dos quincenas solicitadas, teniendo en cuenta la solicitud del resto del personal.

En ningún caso podrá disfrutar las vacaciones más del 25 por 100 del personal a la vez por períodos arriba mencionados.

Si el resultado de la aplicación de este porcentaje no corresponde a un número exacto de personas, el cociente resultante será redondeado de la siguiente forma:

– Si el coeficiente resultante es inferior a 0,5 se redondeará a la cifra inmediatamente inferior.

– Si el coeficiente resultante es igual o superior a 0,5 se redondeará a la cifra inmediatamente superior.

El calendario laboral, incluidas las fechas de vacaciones se comunicarán al Comité de empresa y a la plantilla hasta el 28 de febrero del año en curso.

Sin perjuicio de lo establecido en el Estatuto de los Trabajadores, en el supuesto de que el periodo de vacaciones, coincida con una incapacidad temporal que imposibilite a la trabajadora o trabajador, durante el año natural al que corresponden, la trabajadora o el trabajador podrá hacerlo una vez finalice su IT, sea cual sea la contingencia que la haya originado y siempre que no hayan transcurrido más de 18 meses a partir del final del año en que se hayan originado.

En ningún caso estas vacaciones podrán ser compensadas económicamente.

Las vacaciones se cogerán por quincenas. En el caso de la segunda quincena de agosto se iniciará el día 16 de agosto, siempre y cuando no coincida con el día de descanso.

Artículo 8. Vestuario de trabajo.

La empresa suministrará toda la ropa que sea necesaria para el cumplimiento de su labor (guantes de látex, de fregar, 2 uniformes anuales, sean mantalas, batas o pijamas, se dará un par de zuecos antideslizantes).

ORDAINSARIAK

9. artikulua. Soldata.

Hitzarmen kolektibo honen indarraldian, honako soldata-igoera hauek egingo dira kontzeptu guztietarako:

- 2021. urtea: 2009-03-01etik aurrera % 1.
- 2022. urtea: KPI + % 0,5, betiere % 2,5 bermatuta.
- 2023. urtea: KPI + % 0,5, betiere % 2 bermatuta.
- 2024. urtea: KPI, betiere % 1,7 bermatuta.
- 2025. urtea: KPI, betiere % 1,5 bermatuta.

Artikulu honetan KPlaren erreferentziarekin aurreikusten diren soldata-berrikuspeneak ezin dute inola ere soldata-jaitsierarik ekarri.

Artikulu honetan KPlari egotzitako balioa ez da inoiz % 0,00 baino txikiagoa izango; beraz, urteko KPla negatiboa bada, % 0,00ko balio minimo hori hartuta kalkulatu da soldata-igoera.

Balioak erantsitako soldata-taulan ageri dira, I. eranskinean.

10. artikulua. Antzinasuna.

Antzinasuna bosturtekotan zenbatuko da; haren balioa soldata-taulan ezarritakoa da, eta urteko 14 ordainsaritan ordainduko da.

LIZENTZIA, BAIMEN ETA ESZEDENTZIAK

11. artikulua. Lizentzia ordainduak.

Aurrerapenez eta idatziz ohartarazita, eta behar bezala justifikatuta, lizentzia ordainduetarako eskubidea izango dute langileek; lizentzia horiek artikulu honetan ezarritakoari jarraikiz hartu eta ordainduko dira.

Era berean, baldintza berdinetan, langileek adierazten diren ordaindu gabeko lizentziak izango dituzte.

Lizentzia guztiak egitate sortzailea gertatzen den unean hartu beharko dira.

a) Ezkontzagatik: 20 egun natural, gehienez ordaindu gabeko beste 10 egun naturaletara arte luza daitekeena. Lizentzia hau, osorik edo bere zati bat, ezin izango da xurgatu oporraldiekin batera tokatzeagatik.

b) Seme-alaben jaiotzagatik: 3 egun natural, eta hiru gehiago zesarea-ebakuntza egiten bada.

c) Ezkontidearen edo seme-alaben heriotzagatik: 5 egun natural. Gurasoen heriotzagatik: 3 egun natural. Aita-amaginarreba, ezkon seme-alaba, neba-arreba, ezkon neba-arreba, biloba, ezkon-biloba, aiton-amona eta ezkon aiton-amona bada: 2 egun natural.

d) Neba-arreba, seme-alaba edo gurasoen (ezkon-senideak barne) ezkontzagatik: Egun natural 1.

e) Ezinbesteko egiteko publiko eta pertsonal bat betetzea, behar duen denbora.

f) Ezkontide edo seme-alaben gaixotasun larriagatik: 3 egun natural. Guraso eta neba-arreba bada: 3 egun natural. Aiton-amona, ezkon aiton-amona, biloba, ezkon-biloba, ezkon-guraso, ezkon seme-alaba eta ezkon neba-arreba: 2 egun natural.

Horretarako, dagokion medikuak hasierako ziurtapenean edo gero edozein alderdik eskatuta horrela kalifikatzen duena hartuko da gaixotasun larritzat. Edonola ere, ospitaleratzea edo ospitaleratu gabe etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoa behar dutenak hartuko dira gaixotasun larritzat. Gaixorik dagoen pertsona etxera eramanean ondoren ere ospi-

RETRIBUCIONES

Artículo 9. Salario.

Durante el período de vigencia del presente Convenio Colectivo se realizarán los siguientes incrementos retributivos para todos los conceptos:

- Año 2021: 1 % a partir del 1/9/2021.
- Año 2022: IPC + 0,5 %, garantizando un 2,5 %.
- Año 2023: IPC + 0,5 %, garantizando un 2 %.
- Año 2024: IPC, garantizando un 1,7 %.
- Año 2025: IPC, garantizando un 1,5 %.

La revisión de salarios con referencia al IPC que contiene el presente artículo en ningún caso podrá suponer una merma salarial.

El valor del IPC que contempla este artículo en ningún caso será inferior al 0,00 %, por lo que si el IPC anual resultase negativo se partirá, a efectos del cálculo de dicho incremento, de ese valor mínimo del 0,00 %.

Se reflejan en la tabla salarial adjunta, anexo I.

Artículo 10. Antigüedad.

La Antigüedad se computará en quinquenios y el valor del mismo es el establecido en la tabla salarial, abonándose en las 14 pagas anuales.

LICENCIAS, PERMISOS Y EXCEDENCIAS

Artículo 11. Licencias retribuidas.

El personal avisando siempre con antelación, por escrito y con la debida justificación, tendrá derecho a licencias retribuidas, que se disfrutarán y abonarán con arreglo a lo que se establece en el presente artículo.

Igualmente, con las mismas condiciones, el personal dispondrá de las licencias no retribuidas que se señalan.

Todas las licencias habrán de disfrutarse en el momento de producirse el hecho causante.

a) Por matrimonio: 20 días naturales, pudiendo ampliarse hasta un máximo de 10 días naturales más de licencia no retribuida. Esta licencia no podrá ser absorbida, en todo o en parte, por coincidir con el periodo de vacaciones.

b) Por nacimiento de hijas o hijos: 3 días naturales, que serán ampliados en tres más si se realiza una operación de cesárea.

c) Por fallecimiento de cónyuge e hijas o hijos: 5 días naturales. En los casos de madre o padre: 3 días naturales. En los casos de madre o padre político, hijo o hija política, hermanas, hermanos, (tanto propio como político) nietas y nietos (tanto propio como político) y abuelas o abuelos (tanto propio como político): 2 días naturales.

d) Por boda de hermanas, hermanos, hijas, hijos, padre o madre, incluidos los políticos: 1 día natural.

e) Por el tiempo indispensable, para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público y personal.

f) Por enfermedad grave de esposa o esposo, hijas e hijos: 3 días naturales. De madre, padre, hermanas y hermanos: 3 días naturales. Abuelas y abuelos (tanto propios como políticos), nietos y nietas (tanto propios como políticos), madre, padre, hermano, hermana hijas e hijos políticos: 2 días naturales.

A estos efectos, se entenderá como enfermedad grave aquella que sea calificada como tal por la facultativa o facultativo correspondiente, bien en la certificación inicial o a requerimiento posterior de las partes. En todo caso, se entenderá como enfermedad grave, aquella que requiera hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización que precise reposo

talean balego bezala jokatuko da, baldin eta medikuak ondoan senide bat behar duela irizten badio.

Lizentziako egun guztiak amaitu baino lehen bukatzen bada ospitaleratze-aldia, lizentzia ere amaitutzat joko da, eta ezingo dira gainerako egunak libre hartu.

Langileak beste baimen bat izateko eskubidea du, ospitaleratzea gertatzen den aldiro.

Ospitaleratzearen ziozko lizentzia ospitaleratzeak irauten duen aldian baliatu ahalko da. Ez da zertan ospitaleratzearen ondorengo egunetan hartu; ospitaleratzea eragiten duen gertaera ez badator bat ukitutako langilearen atsedeen-aldiekin edo lanik egin behar ez duen egunekin, txandakako egunetan hartu ahalko da.

Nolanahi ere, lizentzia hartzeko enpresa eta langilea ados jarri beharko dira:

g) Etxebizitzaz aldatzea: Egun natural 1.

h) Langileek, emakume zein gizonek, 9 hilabete baino gutxiagoko seme-alaba baten edoskitzaldiagatik, lana ordubetez uzteko eskubidea edukiko dute, eta bi zatitan zatitu ahal izango dute. Eskubide horren orde, emakumeak edo gizonak, nahi izanez gero, ordubete murriztu ahal izango du lanaldia eguneko lanaldiaren lehenengo edo azkenengo orduan.

Era berean, aitak edo amak pilatu ahal izango du eguneko ordu hori, hau da, laneguneko ordubete, langilearen lan-egutegiaren arabera, eta jaiotzaren ostean urtea betetzen den egunera arte hartu.

b) c) eta f) kasuetan, egun natural bat gehiago hartu ahalko da, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora lekualdatu behar bada, eta 2 egun luzatuko dira, 200 kilometro baino gehiago egin behar badira.

Izateko bikoteek, bikotea osatzen duten pertsonen sexua edozein dela ere, elkarrekin bizi direla behar den moduan egiaztatuz gero (baterako eroldako ziurtagiria, izateko bikoteen erregistroaren ziurtagiria edo bikote moduan elkarrekin bizi direla egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizial), artikuluko honetan ezkontideen kasuan xedatzen diren eskubide berak izango dituzte.

i) Langileek Gizarte Segurantzako espezialisten kontsulta medikora joateko eskubidea izango dute, behar den denboraz, baldin eta medikuntza orokorreko fakultatibo batek agindu eta kontsulta horretara lan-orduetan joan behar bada; horretarako, baina, aurretiaz arestian aipatu den mediku-agindua kontsulta-orrria aurkeztu beharko da egiaztatzeko.

Gainerako kasuetan, adibidez, Gizarte Segurantzako familia-medikuaren (medikuntza orokorra) kontsultara joateko edo medikuntza partikularreko kontsultara joateko, gehienez ere 16 ordu ordainduko dira urtean, eta justifikatu egin beharko dira.

Urteko 16 orduko muga horren barruan, ezkontideari, seme-alabei edo gurasoei medikuaren kontsultetara, mediku-azterketetara, ospitaleratzeetara edo ebakuntza txiketara laguntzeko absentziak sartuko dira, baldin eta behar bezala egiaztatzen badira.

Era berean, urtean 15 egun hartu ahalko dira Gizarte Segurantzako sistemaren barruan edo mediku hitzartu edo pribatuaren bidez in vitro ernalketa-tratamendua egiteko.

j) Jaio aurreko azterketak eta erditzerako prestatzeko teknikak egiteko behar den beste denbora hartu ahal izango da, baldin eta behar bezala frogatzen bada horiek lanaldian egin behar direla.

k) Norberaren gauzetarako hiru egun urtean, edo kontratuaren arabera proportzionalki dagozkionak. Ezingo dira urte batetik bestera metatu.

domiciliario. Se considerará hospitalización cuando la persona enferma haya sido trasladada a su domicilio y la facultativa o facultativo estime necesaria la asistencia de un familiar a su lado.

En el caso de que la hospitalización finalice antes del disfrute completo de los días de la licencia, esta se entenderá finalizada, sin poder disfrutar los días restantes.

Se tendrá derecho a una nueva licencia cada vez que se produzca una nueva hospitalización.

La licencia por hospitalización podrá disfrutarse mientras dure la hospitalización y no tiene que ser en los días siguientes a la hospitalización, pudiendo ser en días alternos en el caso de que el hecho causante no coincida con los períodos de descanso del trabajador/a afectado/a o con los días de no prestación de los servicios.

En todo caso, el disfrute de esta licencia se sujetará a acuerdo entre empresa y trabajador.

g) Traslado de domicilio: 1 día natural.

h) Los trabajadores/as, por lactancia de una hija o hijo menor de 9 meses, tendrán derecho a una hora de ausencia al trabajo, que podrán dividir en dos fracciones. El hombre o la mujer, por su voluntad, podrán sustituir este derecho por una reducción de jornada de una hora, que será la primera o la última de la jornada diaria.

Asimismo, el padre o la madre podrán optar por acumular esta hora diaria, a razón de una hora por cada día laborable, conforme al calendario laboral de la trabajadora o trabajador y disfrutarlo hasta que se cumpla un año del nacimiento.

En los casos b), c) y f), se ampliará en un día natural más, cuando sea necesario realizar un desplazamiento fuera de la comunidad Autónoma de País Vasco y, en el caso de la distancia sea superior a 200 km, se ampliará a 2 días.

Las parejas de hecho, indistintamente de cuál sea el sexo de sus componentes, siempre que la convivencia se acredite de forma suficiente (certificado de empadronamiento común, certificación de registro de parejas de hecho o cualquier otro documento que, con carácter oficial, acredite su situación de convivencia de pareja) generará los mismos derechos que los contemplados en este artículo para el caso de matrimonio.

i) El personal tendrá derecho por el tiempo necesario a consulta médica de especialistas de la Seguridad Social, cuando coincidiendo el horario de consulta con el de trabajo se prescriba dicha consulta por la facultativa o el facultativo de medicina general, debiendo presentar previamente a la empresa el volante justificativo de la referida prescripción médica.

En los demás casos, como asistencia a consulta de médica o médico de cabecera de la Seguridad social (medicina general) o asistencia prestada por la medicina particular, hasta el límite de 16 horas anuales, que deberán ser justificadas.

Dentro de ese límite conjunto de 16 horas al año, se considerarán las ausencias motivadas por acompañamiento, siempre que sea debidamente justificado, a consultas médicas, revisiones médicas, ingreso hospitalario e intervenciones de menor importancia de cónyuge, hijas o hijos y madre o padre.

Asimismo, se disfrutará de 15 días al año para el tratamiento de fecundación in vitro dentro del sistema de la Seguridad Social, o bien, a través de médico concertado o privado.

j) Derecho a ausencia por el tiempo indispensable para la realización de exámenes prenatales y técnicas de preparación al parto, justificando su realización dentro de la jornada laboral.

k) Tres días de asuntos propios remunerados al año, no acumulables de un año para otro o proporcionalmente al tiempo de duración del contrato.

12. artikulua. Ordaindu gabeko lizentziak.

Enpresek gehenez 30 eguneko ordaindu gabeko lizentziak emango dizkiete hala eskatzen duten langileei. Zatikatu ahal izango dira, baldin eta guztira 30 egun natural baino gehiago hartzen ez badira. Horrelako lizentziak ezin izango dira hartu oporren aurre-aurreko edo ondo-ondoko egunetan.

Eskaria idatziz egin beharko da, lizentzia hartu baino hama-bost egun lehenago, egitate sortzaileak epe hori betetzea eragozten duenean izan ezik.

GIZARTE-HOBKUNTZAK

13. artikulua. Aldi baterako ezintasunagatik prozesuen prestazioa.

Laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondoriozko aldi baterako ezintasuneko egoeretan, enpresak prestazioak osatuko ditu, langileen ordainsarien hileko zenbateko osoaren % 100eraino, lehenengo egunetik aurrera.

Ospitaleratzea eskatzen duten aldi baterako ezintasunetan, enpresak soldatak osoraino osatuko ditu ospitaleratzeak dirauen bitartean.

Urte natural bakoitzean gertatzen diren gaixotasun arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasuneko egoeretan, enpresek prestazio ekonomikoak osatuko dituzte, langileen ordainsarien hileko zenbateko osoaren % 100era arte, lehen egunetik.

14. artikulua. Erretiroa.

Enpresa honetako langileek txanda-kontratuan aritzeko eskubidea izango dute, baldintza egokiak betetzen badituzte eta erakunde publiko ofizialek onartzen badute.

15. artikulua. «Ad personam» osagarria. Gainerako baldintzak.

Baldintza onuragarrienak mantenduko dira, baldin eta hitzarmen honetako baldintzek edo beste batzuetakoek enpresa-hitzarmen honetan jasotako baldintzak osorik edo partzialki hobetzen badituzte.

Hitzarmen honek hura ordeztzen duen beste bat sinatu arte jarraituko du indarrean, baita aurreko hitzarmenetan adostuta-kobekuntza guztiek ere.

16. artikulua. Preco lanbidearteko akordioa.

Edonola ere, bi alderdiek berariaz adosten dute desadostasunak konpontzeko Preco lanbidearteko akordioaren adiskidetzeta bitartekaritza-prozedurei jarraituko dietela. Arbitraje-prozedura aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da alderdi biak erabaki horrekin ados egotea.

17. artikulua. Soldata ez aplikatzea.

Enpresak ezingo dio inoiz hitzarmen hau ez aplikatzeko aukerari heldu Langileen Estatutuak (LE) 82.3. artikuluan jasotzen duen prozeduraren bidez; hala badagokio, iraungi baino lehen hura berriz negoziatzen ahalagindu beharko du, beste hitzarmen bat lortzeko edo dagoena berrikusteko, LEn 86.1. artikulua xedatzen duen moduan.

Enpresak hitzarmen kolektibo hau aldi batez ez aplikatzeko asmoa badu (arrazoi ekonomikoak, teknikoak edo antolaketari edo produkzioari dagozkionak tarteko), langileen ordezkariarekin akordiorik lortzen ez bada eta gatazkak konpontzeko prozedurek desadostasuna konpontzen ez badute, orduan beharrezkoa izango da bi aldeak (enpresaren ordezkari eta langileen ordezkariaren gehiengo) ados jartzea, hitzarmen kolektibo ez aplikatzearen inguruko desadostasuna Hitzarmen Kolektiboen Aholku Batzorde Nazionalaren (CCNCC) edo autonomia-erakundearen sor litekeen hirualdeko organoaren esku uzteko.

Artículo 12. Licencias no retribuidas.

Las empresas concederán licencias no retribuidas de hasta 30 días que podrá disfrutarse fraccionadamente en periodos inferiores siempre que no se superen los 30 días naturales a quienes lo soliciten si bien no podrán disfrutarse estas licencias inmediatamente antes o después de las vacaciones.

La solicitud deberá hacerse por escrito con quince días de antelación al comienzo del disfrute de la licencia, excepto en los casos en que el hecho causante de la petición no permita observar dicho plazo.

MEJORAS SOCIALES

Artículo 13. Prestación procesos de incapacidad temporal.

En las situaciones de incapacidad temporal derivadas de accidente de trabajo y enfermedad profesional, la Empresa complementará las prestaciones hasta el 100 % del importe íntegro mensual de las retribuciones del personal, desde el primer día.

